



ETEKINA

Bero-energia berreskuratzea



ETEKINA


Bero-energia berreskuratzea

ETEKINA ren helburua da hondar-beroaren % 40 baino gehiago berreskuratzea energia kontsumo handiko industrietan, bero-hodietan oinarrituriko bero-trukagailuen laguntzaz (HPHE).

ZER DIRA HPHE_{AK}?


Bero-hodi batek pasiboki transferitzen du bero-energia, fluxu berotik fluxu hotzera, hermetikoki zigitatutako metalezko hodi baten barruan gertatzen den kondentsazio eta irakite ziklo baten bidez. Hala, efizientzia handiz transferitu daiteke beroa hodiko eremu berotik alde hotzera.

ETEKINA proiektuan, ingeniariak hainbat bero-hodi uztartuko dituzte fabrika bakoitzaren premiekin bat datorren **bero-trukagailua** diseinatzeko.



ERRONKA:

ekoizpen-lerroetan hainbat ihes-fluxu daude, eta hauek sistemari kalte egin diezaioketen konposizio, emari eta tenperatura desberdinak dituzte. Ingeniariak, konfigurazio zehatza aurkitu, eta material egokiak aukeratu behar dituzte bero-hodietarako, beroa efizientziaz berreskuratzea ahal izan dadin fabrika ingurunean dagokion tenperatura-tartearen barruan. Are gehiago, ETEKINAREN asma da xede-prozesuetan beroa berrerabiltzea ekoiztutako piezen kalitatea arriskuan jarri gabe.





Bero-trukagailuaren prototipoa instalatuz, fabrikako bero kudeaketa nabarmen hobetu, ingurumen-inpaktua txikitu eta energia-fakturak murriztu ahal izango dira -eta gehinez hiru urteko epean amortizatuko da-.



Aluminioaren Industria

Berarienekoizpen-unitateetako batean diseinatu eta instalatutako ETEKINA prototipoaren bidez, etekina ateratzea espero du automobilgintza industriaren hornikuntzako lider globala den FAGOR EDERLANek, bere energia kostuak zuzenean murriztuz eta, horrez gain, beste hainbat ekoizpen lerrotan kontzeptua aplikatuz.



Altzairuaren Industria

Esloveniako Metal Ravne altzairu-ekoizleak asmo hauek ditu: lehiakortasun globala handitzea, tokiko lana ziurtatzea eta EBk klimari dagokionez 2020rako ezarri dituen helburuak lortzen laguntzea, beroa berreskuratuz aurreztutakoari esker.



Zeramikaren Industria

Italiako Atlas Concorde enpresak, zeina zeramikazko lauaren ekoizpenaren buruan baita, ETEKINA prototipoari esker eraginkortasun energetikoa nabarmen hobetuko duela eta kostuak murriztuko dituela espero du.



HEAT PIPE TECHNOLOGIES FOR INDUSTRIAL APPLICATIONS

www.etekina.eu

IK4  IKERLAN


fagorederlangroup

insertec 
Furnaces & Refractories

econotherm 
WASTE HEAT RECYCLING TECHNOLOGY

 Brunel
University
London

sij | metal
ravne

 Jožef Stefan Institute
Energy Efficiency Centre

 atlas concorde

 UNIMORE
UNIVERSITÀ DEGLI STUDI DI
MODENA E REGGIO EMILIA

European
Science
Communication
Institute  ESCI



* Proiektu honek Europar Batasunaren Horizonte 2020 ikerkuntza eta berrikuntza programaren finantzaketa jaso du, 768772 zenbakiko diru-laguntza hitzarmenaren barruan.